



Dote Ayerbe

DOROTEA AYERBE

(1908-V-25 / 1991-XII-31).

(in memoriam)

Joxan

Bertan, eta beste laguntzak izan bazituzten ere, Faustina bere ahizpa eta Dote aritu ziren irakaskintzan urte luzetan. Frantzia ziren ikasiak eta garairako berrikuntza pedagogikoak zekartzaten. Ez bait da txantxetakoa hauek irakasten zutena: egunez, Ohinarritzko Hezkuntza, Mekanografia, Takigrafia, Frantzea, Ingelesa, esku-lanak. Gauzez, berriz, kontabilitatea eta alfabetatu gabeen klaseak izaten ziren.

Bataz beste, hirurogeikoren bat izaten zen ikasleen kopurua, kurtsoero. Goizeko klaseak gaztekeraz izaten ziren, arratsaldez harremanak eta esplikazioak euskaraz egiten zirelarik. Gerra ondoren, gauzak aldatu baziren ere, euskarak bere lekutxoia izan zuen eskolan, baserritarrekin bederen.

Eskolan leku desberdina betetzen zuten bi ahizpek. Faustina barnekoiagoa zen, ixila, beti ikasten ziharduena eta demagun, profesionalagoa. Dote, berriz, hitzunagoa zen eta, autoritatea ezartzen zekien arren, ikasleengandik hurbilekoa genuen. Hura handiekin aritzen zen, hau txikiekin.

Izan ere, eskolan hamalau urte bitarte adin guztietakoak aritzen ziren, hiru taldetan banaturik: mutilak, neskek eta haurrak. Hiru talde hauek erabat bereizturik ziharduten, Maiatzako Loreetarako elkartzeko zirelarik soilki. Garaian garaiko.

Gela horietatik pasatutakoek gogoan dute, testu liburu bakartzat "Enciclopedia" lodia, agineko mina kentzeko ahoan eduki beharreko "licor de caña" alkolduna, negua hurbiltzen zeneko elkar-lanean montatu beharreko estufa keatsua, botilan gorde beharreko eta pastilarekin egindako tinta urtsua, kristalarekin mahiak garbitu beharrekoa...Eta hainbat eta hainbat oroimen.

Baina Doteren aktibitatea ez zen eskolara mugatzen eta Mariaren Alaben artean antolatzaile nagusietarikoa zen, bai kantuak eta entsaioak prestatzen, bai lehenengo jaunartzetan nesken lerroak egokitzen.

Bereziki maitea zuen Dotek Corpus egunerako kalean apainketa: menta eta ihi nahasketaz kaleak estaltzen zituen, gainetik oihal eta ehun txuriak jarriaz. Bere esanetan, mentak zapaltzerakoan usain ona egiten bait zuen.

Maite zuen, maite ere, eta familiz hirugarren belaunaldiz jasotako eginkizuna zuen. Madalen ermitaren apainketa, herriko jaiak hurbiltzen zirenean; hornidura bere poltsikutik ordaintzen zuelarik. Antolatzaile ona zen eta nabarmentzen zitzaion.

Denda, berriz, eta barka diezadatela bere senideek ausarki

Urte Zahar egunez, "DOTE AYERBE" hil zenaren berri jaso nuenean, besteak beste sorpresa ere hartu nuela aitortu behar dut. Eta sorpresa diot, nere bizitzaren zati egina nuelako. Ez nuen ez, egia esan, harreman estu eta handia berarekin izan; baina beti, gogoan dudaretik, Dote presente izana zen nere bizitzan, leku diskreto eta aparte batean, baina presente: etxeko eskaileretan gora eta behera, eskola oroimenean, herriko prozesiotan, kanikak erosteko momentutan, garai bateko Erretereriako Orfeoaren kontzertutan... eta abar luze batean.

Azkeneko urtetan, berriz, ez nuen dendaren atzekaldean zuten sukalde horretatik kanpo ikusi. Banekien, noski, Bilbon maiz izaten zela, baina beti hor jarraitzen zuen neretzat, ate ondoan norbaitekin hizketan, edota kristalaren barru aldetik herriari so. Izan ere, horrelakoxe irudia zuen neretzat: herriko teatroari begira balego bezala, horretarako anfiteatroko sarrerarik onena hartua zuelarik. Eta atrebentziarekin esaten ausartuko naiz, begiratzeaz bat arduratu ere, arduratzen zela Erretereriako arazoekin; oso berea bait zuen herria. Guzti honengatik sorpresa eta harridura. Iadanik, Fueroen Plaza ez da bera izango, eta izkin horren kristalen atzekaldean ez da bere begiratu zorrotzik ikusiko. Ohituko gara, agian, baina ez da gauza bera izango eta bioakio lerro hauen bidez nere omenalditxo xumea.

Dote Ayerberen bizitzaren barruan, ez da dudarik horretan, eskola izan zen eginkizunik nagusia. Eskola "Maria de Lezo, 5-ean" aurkitzen zen eta etxea egin berria zelarik ireki zuten eskola, Errepublikara garaian.



Gelako neskak Guadalupen

hitzegiten badut, ez zuen inoiz serio hartu. Jendearekin egoteko eta hitzegiteko aitzaki bat besterik ez zuela iruditzen zait. soilki.

Azkeneko urtetan, erretiratuxeagoa bizi izan zen, Bizkaian egonaldi luzeak egiten zituelarik. Eta herrira etortzean, horren teatroari begira somatzen nuen.

Ez dakit zergatik, baina Dotengan pentsatuz, Wittgensteinen hitzak datozkit burura, horixe esaten somatzen bait dut: "paisaia zabal baten ebakera ezberdinak erakusten dizkiet nere ikasleei, nondik nora jo asmatzen eragotzi diezaieketen ebakerak"-

Bera gabe, Fueroen Plaza ez da berdina izango. Ohituko gara, agian, baina ez da gauza bera izango.



Faustina barnekoia goa zen